## Portugaleteko Udala

IRAGARKIA

Portugaleteko Udalbatza Osoak, 2012ko ekainaren 28ko ohiko bilkuran, besteak beste zirela, erabaki hau hartu zuen.

Udalbatzak hasierako onespena emanda Terrazen Ordenantzari, bukatu egin da jendaurrean egoteko epea. Erreklamazio bat eginda, aztertu ondoren, ezetsi egin da.

## Ayuntamiento de Portugalete

ANUNCIO

El Pleno del Ayuntamiento de Portugalete, en sesión ordinaria celebrada el 28 de junio de 2012, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo.

Finalizado el segundo plazo de información pública la Ordenanza de Terrazas aprobada inicialmente por el Pleno, se ha presentando una alegación que, una vez estudiada, ha resultado desestimada.

cve: BAO-BOB-2012a136

Bestetik, udal zerbitzu teknikoek akatsa sumatu dute ordenantzaren testuen atalen zenbakietan eta, halaber, komenigarri iritzi diote 18. artikuluko zati bat kentzeari.

Horren ondorioz, udal zerbitzuek txostena eginda eta Hiri Plangintza eta Garapenerako Batzordeak 2012ko ekainaren 26an aldeko irizpena emanda, indarreko legeriarekin bat etorriz, hauxe erabaki da:

*Lehena:* Behin betiko onestea erabilera publikoko espazioetan terrazak ipintzea Arautzeko Ordenantzari, behin udal teknikariek proposatutako aldaketak eginda, erabaki honekin batera doan eranskineko testuarekin bat etorriz.

*Bigarrena:* Ordenantza «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzea.

*Hirugarrenik:* Alkate jaunari ahalmena ematea, erabaki hau garatzeko hartu beharreko erabaki guztiak har ditzan.

ERANSKINA

**ERABILERA PUBLIKOKO ESPAZIOETAN TERRAZAK IPINTZEA ARAUTZEKO ORDENANTZA**

I. TITULUA

## XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

**1. artikulua.—*Xedea***

1. Ordenantza honen xedea da erabilera publikoko espazioetan ipini beharreko ostalaritza alorreko terrazen instalazioari araupetze juridiko eta teknikoa ezartzea, beti ere Toki Oinarriei buruzko 7/85 Legea, Toki Entitateen Ondasunei buruzko Araudia, Toki Entitateen Zerbitzuei buruzko Araudia, dagozkion hirigintza eta ingurumen legeak eta toki edo goragoko mailako arau aplikagarri guztiak betetzen ditugularik.

2. Aurreko atala bete dadin, uste izango dugu terrazak hauexek direla: hots, mahai, aulki eta behin-behineko instalazioen multzoak, higikorrak, ostalaritza-jarduera horrek bere jardun nagusian aritzeko baimena duelarik.

**2. artikulua.—*Aplikazio eremua***

1. Ordenantza hau erabilera publikoko espazio guztietan (herribidea, tarte libreak, berdeguneak etab.) aplikatuko da, berdin delarik publikoak zein pribatuak izatea. Espazio bat erabilera publikokoa dela erabakitzeko, hala egitatezko egoera nola indarreko planeamendua hartuko dira kontuan.

2. Ordenantza hau ez zaie aplikatuko instalazioei, baldin eta, aurreko artikuluko definizioaren barruan egonda ere, herriko jaiak direla eta, aldi-baterako jarduerei badagozkie eta, horren ondorioz, Udalak ezarritako egutegia eta eskakizun batzuk bete behar badituzte.

**3. artikulua.—*Mugapen orokorrak***

1. Ostalaritza Jardueren Kokapen, Instalazio eta Funtzionamenduari buruzko Ordenantzak ezarritako sailkapeneko II. taldeko jarduerei dagozkien terrazak baino ez dira onetsiko.

2. Ezin izango dira hauetan ezarri:

— Bi metro eta laurogei zentimetro (2,80 m) zabal baino txikiagoak diren espaloietan edo oinezkoen pasabideetan.

— Oinezko pasabideen aurrean.

— Lokal publikoetako larrialdietarako irteeren aurrean.

— Autobus geltokien aurrean.

— Hondakinen edukiontzien aurrean.

— Berdeguneetan edo lorategietan.

3. Edonola ere, instalazioak Irisgarritasunaren Legea bete beharko du.

4. Instalazioak bermatu egin beharko du une oro iritsi ahal izango dela lokaletara, atarietara eta hondakinen edukiontzietara.

Por otro lado, los servicios técnicos municipales han detectado un error en la numeración, así como la conveniencia de eliminar parte del artículo 18.

A tal efecto, previo informe de los Servicios Municipales y con el dictamen favorable de la Comisión Informativa Permanente de Planificación y Desarrollo Urbano de 26 de junio de 2012, de conformidad con la legalidad vigente, se acuerda:

*Primero:* Aprobar definitivamente la Ordenanza Reguladora de la instalación de terrazas en espacios de uso público, con las modificaciones propuestas por los técnicos municipales y conforme al texto que se incorpora como anexo al presente acuerdo.

*Segundo:* Publicar la ordenanza en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

*Tercero:* Facultar al señor Alcalde para la adopción de cuantos acuerdos sean precisos en ejecución del presente.

ANEXO

**ORDENANZA REGULADORA DE LA INSTALACIÓN DE TERRAZAS EN ESPACIOS DE USO PÚBLICO**

TÍTULO I

## OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

**Artículo 1.—*Objeto***

1. Es objeto de la presente ordenanza la regulación jurídica y técnica de la instalación de terrazas vinculadas al ramo de la hostelería a ubicar en espacios de uso público, al amparo de lo dispuesto en la Ley 7/85, de Bases de Régimen Local, en el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, en el Reglamento de Servicios de las Entidades locales, en la legislación urbanística y medioambiental que corresponda y en la demás normativa de ámbito local o superior que sea de aplicación.

2. A los efectos de lo señalado en el apartado anterior, se entienden como terrazas el conjunto de mesas, sillas e instalaciones provisionales, móviles, que sirvan de complemento temporal a una actividad legalizada del ramo de la hostelería que disponga de autorización para el ejercicio de la actividad principal.

**Artículo 2.—*Ámbito de aplicación***

1. La presente ordenanza es aplicable a todos los espacios (vía pública, espacios libres, zonas verdes, etc.) de uso público, sean de propiedad pública o privada. Esta condición de uso público vendrá determinada en función tanto de la situación de hecho como por aplicación de las determinaciones del planeamiento vigente.

2. Esta normativa no será aplicable a aquellas instalaciones que, aun incluidas en la definición formulada en el artículo anterior, sean actividades temporales ejercidas con motivo de actos festivos populares, con sujeción al calendario y requisitos establecidos por la autoridad municipal competente.

**Artículo 3.—*Limitaciones generales***

1. Únicamente se permitirá la instalación de terrazas vinculadas a actividades incluidas en el grupo II conforme a la clasificación establecida en la Ordenanza Reguladora de la Ubicación, Instalación y Funcionamiento de las Actividades de Hostelería..

2. No se permitirá su colocación:

— En aceras ni espacios peatonales que tengan una anchura inferior a 2,80 metros.

— Frente a pasos de peatones.

— Frente a salidas de emergencia de locales de pública concurrencia.

— Frente a parada de autobuses.

— Frente a contenedores de residuos.

— En zonas verdes o ajardinadas.

3. En todo caso la instalación dará cumplimiento a la Ley de Accesibilidad.

4. La instalación deberá asegurar la accesibilidad permanente a locales y portales, así como a los contenedores de residuos

cve: BAO-BOB-2012a136

**4. artikulua.—*Hainbat debeku, herri interesa dela eta***

Dagokion udal aginteak debekatu ahal izango du terrazak eta haien osagarriak instalatzea, herri interesak hala eskatzen duenean, bide-segurtasuna, lan publiko zein pribatuak edo horrelako zertzeladak direla kausa.

II. TITULUA

## INSTALAZIOAK IPINTZEKO BALDINTZAK

1. KAPITULUA

### IBILGAILUEN ZIRKULAZIORAKO KALEETAKO ESPALOIETAN INSTALAZIOAK IPINTZEKO BALDINTZAK

**5. artikulua.—*Luzetako garapena***

1.- Instalazioaren luzetako garapena, osagarri guztiak (banatzekoak, lorontziak, alboko babesgarriak etab.) barne, hamabi (12) metrokoa izango da gehienez; horren salbuespen bakarra izango da terrazako lokalaren fatxada luzeagoa denean, kasu horretan gehienezko luzera lokalaren fatxadarena bera izango baita.

2. Instalazioa lokalaren fatxada baino luzeagoa bada, instalazioa dagokien beste lokalen titularren idatzizko adostasuna lortu beharko da, baldin eta terraza beste establezimendu horren fatxadako lerrokaduraren ondoan proiektatzen bada. Ondoko higiezinean etxebizitzen ataria balego, jabeen elkargoaren idatzizko adostasuna lortu beharko litzateke. Edonola ere, terrazak hartzen duen tarte gehigarri hori alboko lokal edo atarira mugatuko da eta ezin izango da haratago iritsi. Adostasuna emateko idazkian adierazi beharko da terrazak hartzen duen lokalaren edo atariaren aurrealdearen kokaera eta terrazak zein ehuneko hartzen dion.

**6. artikulua.—*Okupazioa***

Aurreko artikuluetako mugapen orokorrak gorabehera, terrazek okupazio-baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Instalazioak etengabe eta une oro bermatu beharko du oinezko pasabidea utziko duela, inolako oztoporik gabea, eta gutxienez bi (2) metro zabal, fatxadatik neurtuta.

b) Luzetara jarriko dira espaloi ertzaren ondoan eta honetatik gutxienez hogei (20) zentimetrora, aparkaturiko autoetara sartzea eta irtetea inola ere ez oztopatzeko; babes-hesia dagoenean, terrazak hesiaren barruko aldetik hamar (10) zentimetrora jarri ahal izango dira.

c) Kaleko espaloia gutxienez sei (6) metro zabal denean, instalazioak oinezko pasabidea utzi beharko du fatxaden ondoan, gutxienez lau (4) metro zabal.

d) Bermaturik egongo da beti lokal, atari eta abarretara iritsi ahal izatea.

II. KAPITULUA

### OINEZKOENTZAKO ALDE, PLAZA ETA BESTELAKO ALDE LIBRE BEREZIETAKO INSTALAZIOAK

**7. artikulua.—*Oinezkoentzako kaleak***

1. Oinezko kaleak dira galtzadarik ez dutenak.

2. Horrelako instalazioak onartzeko, eskakizun hauek bete behar dira: kalea gutxienez sei (6) metro zabal izan behar da eta terrazak oinezko pasabidea utzi behar du, inolako oztoporik gabea, gutxienez bi (2) metro zabal, fatxadatik neurtuta.

3. Instalazioak inguruan dituen hiri altzariak (jezarlekuak, paperontziak, farolak, arbolak...) errespetatu beharko ditu. Jarduera garatzeak altzariok narriatuz gero, horren erantzulea izango da eta, behar izanez gero, ordeztu egin beharko ditu.

**Artículo 4.—*Prohibición por razones de interés público***

La autoridad municipal competente podrá así mismo prohibir la instalación de terrazas y sus elementos auxiliares, en aquellos casos en que así lo exija el interés público, por razón de seguridad viaria, obras públicas o privadas o cualesquiera otras circunstancias de interés público.

TÍTULO II

## CONDICIONES DE INSTALACIÓN

CAPÍTULO I

### INSTALACIONES EN ACERAS DE CALLES CON CIRCULACIÓN RODADA

**Artículo 5.—*Desarrollo longitudinal***

1. El desarrollo longitudinal máximo de la instalación, incluidos todos los elementos, como separadores, jardineras y protecciones laterales, etc., no rebasará los 12 (doce) metros como longitud total, salvo que la fachada del local que da soporte a la terraza tenga mayor longitud; en este caso la longitud máxima coincidirá con la longitud de la fachada del local.

2. Si la instalación proyectada rebasa la longitud de la fachada del local soporte de la actividad principal, se deberá acreditar por escrito la conformidad de las personas titulares de los demás locales a los que pretenda dar frente, en el caso de que la terraza se proyecte junto a la alineación de fachada del establecimiento afectado. En el caso de portales, se deberá acreditar la conformidad por escrito de la comunidad de propietarios del portal al que se pretenda dar frente. En todo caso el rebase se limitará al local o portal contiguo, no extendiéndose más allá. En la conformidad por escrito deberá aparecer indicada el porcentaje y situación del frente de local o portal afectado.

**Artículo 6.—*Ocupación***

1. Sin perjuicio de las limitaciones generales recogidas en los artículos anteriores, las terrazas se sujetarán a las siguientes condiciones de ocupación:

a) La instalación deberá garantizar, de forma permanente y en todo caso, un paso peatonal libre de cualquier obstáculo mayor o igual a 2 (dos) metros de anchura respecto de la fachada.

b) Se dispondrán longitudinalmente, junto al borde de la acera, separados de éste no menos de 20 (veinte) centímetros, al objeto de no entorpecer la entrada y salida de los pasajeros de los vehículos estacionados, salvo que existiera valla de protección, en cuyo caso se separará al menos 10 (diez) centímetros de su proyección vertical interior.

c) En calles con ancho de acera igual o superior a 6 (seis) metros, la instalación deberá dejar un paso peatonal al lado de las fachadas de los edificios como mínimo de 4 (cuatro) metros de anchura.

d) Quedará asegurada la accesibilidad permanente a locales, portales, etc.

CAPÍTULO II

### INSTALACIONES EN ÁREAS PEATONALES, PLAZAS Y ESPACIOS LIBRES SINGULARES

**Artículo 7.—*Calles peatonales***

1. Se consideran calles peatonales aquellas que no disponen de calzada.

2. Sólo se admiten instalaciones de este tipo en calles de anchura igual o superior a 6 (seis) metros y dispuestas de forma que dejen, de forma permanente y en todo caso, un paso peatonal libre de cualquier obstáculo mayor o igual a 2 (dos) metros de anchura respecto de las fachadas.

3. Deberá respetar el mobiliario urbano existente (bancos, papeleras, farolas, árboles...), siendo responsable del deterioro que pudiera sufrir por el desarrollo de la actividad y debiendo reponer aquellos que por la misma razón lo requieran.

cve: BAO-BOB-2012a136

4. Instalazioaren luzetako garapena, osagarri guztiak (banatzekoak, lorontziak, alboko babesgarriak etab.) barne, hamabi (12) metrokoa izango da gehienez; horren salbuespen bakarra izango da terrazako lokalaren fatxada luzeagoa denean, kasu horretan gehienezko luzera lokalaren fatxadarena bera izango baita.

5. Instalazioa lokalaren fatxada baino luzeagoa bada, instalazioa dagokien beste lokalen titularren idatzizko adostasuna lortu beharko da, baldin eta terraza beste establezimendu horren fatxadako lerrokaduraren ondoan proiektatzen bada. Ondoko higiezinean etxebizitzen ataria balego, jabeen elkargoaren idatzizko adostasuna lortu beharko litzateke. Edonola ere, terrazak hartzen duen tarte gehigarri hori alboko lokal edo atarira mugatuko da eta ezin izango da haratago iritsi. Adostasuna emateko idazkian adierazi beharko da terrazak hartzen duen lokalaren edo atariaren aurrealdearen kokaera eta terrazak zein ehuneko hartzen dion.

**8. artikulua.—*Plaza eta espazio libre bereziak***

1. Leku horietan terrazak ipintzeko eskariak kasuan kasuko gorabeheren arabera ebatziko dira eta honako muga hauek kontuan harturik:

a) Oinezko pasabidea utzi beharko da, inolako oztoporik gabea, gutxienez bi (2) metro zabal.

b) Terrazen arteko aldea metro batekoa (1) ala bi (2) metrokoa izango da, terrazen lokalen arteko aldearen eta udal teknikarien arabera.

c) Lokal, atari eta abarretarako sarbidea libre utzi beharko da.

d) Instalazioaren luzetako garapena, osagarri guztiak (banatzekoak, lorontziak, alboko babesgarriak etab.) barne, hamabi (12) metrokoa izango da gehienez; horren salbuespen bakarra izango da terrazako lokalaren fatxada luzeagoa denean, kasu horretan gehienezko luzera lokalaren fatxadarena bera izango baita.

2. Instalazioa lokalaren fatxada baino luzeagoa bada, instalazioa dagokien beste lokalen titularren idatzizko adostasuna lortu beharko da, baldin eta terraza beste establezimendu horren fatxadako lerrokaduraren ondoan proiektatzen bada. Ondoko higiezinean etxebizitzen ataria balego, jabeen elkargoaren idatzizko adostasuna lortu beharko litzateke. Edonola ere, terrazak hartzen duen tarte gehigarri hori alboko lokal edo atarira mugatuko da eta ezin izango da haratago iritsi. Adostasuna emateko idazkian adierazi beharko da terrazak hartzen duen lokalaren edo atariaren aurrealdearen kokaera eta terrazak zein ehuneko hartzen dion.

**9. artikulua.—*Alde Zaharra***

1. Alde Zahar osoa izango da espazio libre berezia eta, horren ondorioz, aurreko artikuluak arautuko du.

2. Terrazako altzariak bateratuak izango dira eta egokitu egin beharko zaizkio dauden kaleen aldaparen mailara. Haien estetika bat etorriko da Alde Zaharreko Monumentu Multzo Historikoarekin eta, horretarako, adostu egin beharko dute ostalariek eta udal teknikariek. Udalbatzak ordenantza hau onetsi eta hiru hilabetera horri buruzko adostasunik ez badago, altzariak Udalak hautatu eta onetsiko ditu.

III. KAPITULUA

**ESKAKIZUN OROKORRAK**

**10. artikulua.—*Gutxieneko aldeak hiri altzarietatik***

Terrazak dauden zonaldean hiri altzariak ere daudenean, gutxieneko alde hauei eutsi beharko zaie:

a) Lerrokadurako zuhaitzak. Gutxieneko alde librea: 0,50 metro. Ez da beharrezkoa zuhaitzetarako irisgarritasunari eustea.

b) Jezarleku eta paperontziak. Gutxieneko alde librea inguru osoan: 0,5 metrotik metro batera bitartekoa, udal teknikarien iritziaren arabera. Irispide librea utziko da haren aurrealde osoan.

4. El desarrollo longitudinal máximo de la instalación, incluidos todos los elementos, como separadores, jardineras, protecciones laterales, etc., no rebasará los 12 (doce) metros como longitud total, salvo que la fachada del local que da soporte a la terraza tenga mayor longitud, en cuyo caso la longitud máxima coincidirá con la longitud de la fachada del local.

3. Si la instalación proyectada rebasa la longitud de la fachada del local soporte de la actividad principal, se deberá acreditar por escrito la conformidad de las personas titulares de los demás locales a los que pretenda dar frente, en el caso de que la terraza se proyecte junto a la alineación de fachada del establecimiento afectado. En el caso de portales, se deberá acreditar por escrito la conformidad de la comunidad de propietarios del portal al que se pretenda dar frente. En todo caso el rebase se limitará al local o portal contiguo, no extendiéndose más allá. En la conformidad por escrito deberán aparecer indicados el porcentaje y situación del frente de local o portal afectado.

**Artículo 8.—*Plazas y espacios libres singulares***

1. Las solicitudes para instalación de terrazas en estos espacios se resolverán según las peculiaridades de cada caso concreto, a criterio de los técnicos municipales y con sujeción a las siguientes limitaciones generales:

a) Se garantizará un paso peatonal libre de cualquier obstáculo, con ancho no inferior a 2 (dos) metros.

b) Se establecerá una separación entre terrazas de entre 1 y 2 metros, en función de la cercanía entre locales que dan soporte a las terrazas y a juicio de los técnicos municipales.

c) Quedará asegurada la accesibilidad permanente a locales, portales, etc.

d) El desarrollo longitudinal máximo de la instalación, incluidos todos los elementos, como separadores, jardineras, protecciones laterales, etc., no rebasará los 12 (doce) metros como longitud total, salvo que la fachada del local que da soporte a la terraza tenga mayor longitud, en cuyo caso la longitud máxima coincidirá con la longitud de la fachada del local.

2. Si la instalación proyectada rebasa la longitud de la fachada del local soporte de la actividad principal, se deberá acreditar por escrito la conformidad de las personas titulares de los demás locales a los que pretenda dar frente, en el caso de que la terraza se proyecte junto a la alineación de fachada del establecimiento afectado. En el caso de portales, se deberá acreditar por escrito la conformidad de la comunidad de propietarios del portal al que se pretenda dar frente. En la conformidad por escrito deberán aparecer indicados el porcentaje y situación del frente de local o portal afectado.

**Artículo 9.—*Casco Viejo***

1. Tendrá en su totalidad consideración de espacio libre singular, rigiéndose por las condiciones del artículo anterior.

2. El mobiliario de la terraza estará unificado y adaptado a la pendiente de las calles donde se sitúe. Mantendrá una estética acorde al Conjunto Histórico Monumental, la cual será acordada entre los hosteleros del Casco Viejo y los técnicos municipales. De no haber acuerdo en el plazo de tres meses desde la fecha de aprobación de la ordenanza en el Pleno Municipal, el mobiliario será elegido y aprobado por la corporación municipal.

CAPÍTULO III

**CONDICIONES GENERALES**

**Artículo 10.—*Distancias mínimas al mobiliario urbano***

Cuando en la zona de implantación de terrazas y veladores existan instalaciones de mobiliario urbano, se establecerán las siguientes distancias mínimas a los elementos que a continuación se detallan:

a) Arbolado de alineación: distancia libre mínima de 0,50 metros. No es preciso mantener accesibilidad directa a tal arbolado.

b) Bancos y papeleras: distancia libre mínima en todo su entorno de 0,5 a 1 metro, a criterio de los técnicos municipales, dejando acceso libre en todo su frente.

cve: BAO-BOB-2012a136

c) Telefono-kabinak. Gutxieneko alde librea inguru osoan: metro bat, kabina minusbaliatuena denean; 0,5 metro gainontzeko kasuetan.

d) Iturriak. Gutxieneko alde librea haien inguru osoan: 2 metro. Irispide librea haien aurrealde osoan.

e) Haurrentzako jolas-aldeak. Gutxieneko alde librea: 2 metro, gomazko zolaren muturretik neurtuta. Irispidea gehienez 4 metro zabal izan behar da.

**11. artikulua.—*Altzariak***

1. Oinezkoen kaleetan, ibilgailuak dabiltzan baina lehentasuna oinezkoak duen kaleetan, plazetan eta espazio libre berezietan altzariak zurezkoak, aluminiozkoak, altxairu herdoilgaitzezkoak edo burdinezkoak izango dira. Ez da baimenduko plastikozkorik, bikain imitatzen ez badu behintzat zura edo burdina.

2. Ibilgailuak dabiltzan kaleetako espaloietan altzariak zurezkoak, aluminiozkoak, altxairu herdoilgaitzezkoak edo burdinezkoak izango dira. Ez da plastikozkorik baimenduko, aipatutako materialok bikain imitatzen ez baditu behintzat edo, bestelakoa izanik, udal teknikariek onartzen ez badute. Edonola ere, koloreak bat etorri behar du inguruarekin, udal teknikarien iritziz.

3. Ez da publizitatedun altzaririk baimenduko. Esponsordun altzariek drogamenpekotasuna aurrezaindu, asistentzia eta gizarteratzeari buruzko indarreko arauak bete beharko dituzte. Esponsordun eremuak, edonola ere, ez du eremu osoaren % 10 gaindituko eta koloreak inguruarekin bat etorri beharko du, udal teknikarien iritziz.

4. Aterki eta eguzkitakoek diseinu zehatza izango dute eta denek kolore berbera, inola ez biziegi edo nabarmenegia, zeinak, udal teknikarien iritziz, inguruarekin bat etorri beharko baitu.

5. Beste altzari osagarri batzuk ere (upelak, hautsontziak, lorontziak...) onartuko dira, baldin eta baimendutako eremuan kokatzen badira, jatorrizko proiektuan aurreikusirik badaude eta irisgarritasunari buruzko indarreko legea betetzen badute.

**12. artikulua.—*Alboko babesak***

1. Alboko babesak jarri ahal izango dira instalazioak hartzen duen azalera mugatzeko.

2. Babesek bidea emango diete itsuei oztopotzat identifikatzeko.

3. Alboko babesek ez dute baimenduriko zabalera gaindituko, eta haien altuera, gutxienez, metro batekoa (1) eta gehienez, metro eta erdikoa (1,50) izango da.

4. Esponsordun babesek 11. artikuluko 3. atala bete beharko dute. Lokal edo establezimenduaren izena edo logotipoa ere erakutsi ahal izango dute eta horrelako kasuetan eremuaren % 50era iritsi ahal izango dira.

5. Jatorrizko proiektua aurreikusi egin beharko ditu alboko babesok.

**13. artikulua.—*Estalkiak***

1. Instalazioa estaltzeko aterkinak, eguzkitakoak eta horrelako higikorrak erabili ahal izango dira.

2. Estalkiak hala proiektuak nola terrazaren lizentziak aurreikusi beharko ditu.

3. Estalki moduan ez da karparik ezta horrelakorik ere baimenduko.

4. Estalki moduan toldoa erabili nahi izanez gero, beste lizentzia bat beharko da, terrazakoaz gain, eta eskakizun hauek bete:

a) Toldoa zabalduta dagoenean, haren kanpoaldeko muturraren gutxieneko altuera 2,50 metrokoa izango da, espaloitik neurtuta.

b) Toldoa zabalduta dagoenean, haren hegal gehienezkotik espaloiaren kanpoaldeko muturrera metro bateko aldea (1 m) egongo da.

c) Toldoaren proiekzioak, espaloiaren gainekoak, ez du hegal egingo hiri altzarien gainean eta ez du oztoporik jarriko altzariotara, ez eta urbanizazioko instalazioetara ere, iristeko.

d) Toldoa establezimenduko fatxadara atxikiko da eta ez da fatxada hori baino zabalagoa izango.

c) Cabinas de teléfonos: distancia libre mínima en todo su entorno de 0,5 metros para las no adaptadas a minusválidos y de 1 metro para las adaptadas.

d) Fuentes: distancia libre mínima en todo su entorno de 2 metros. Acceso libre en todo su frente.

e) Área de juegos infantiles: distancia libre mínima de 2 metros respecto del borde del pavimento de goma. Acceso mínimo de 4 metros de anchura.

**Artículo 11.—*Mobiliario de la instalación***

1. En las calles peatonales, calles con circulación rodadaza con prioridad para el peatón, plazas y espacios libres singulares el mobiliario deberá ser de madera, aluminio, acero inoxidable o forja. No se autorizará mobiliario de plástico, salvo que sea una buena imitación de madera o forja.

2. En las aceras de calles con circulación rodada el mobiliario deberá ser de madera, aluminio, acero inoxidable o forja. No se autorizará mobiliario de plástico, salvo que sea una buena imitación de los anteriores materiales o, siendo diferente, sea de una calidad aceptada por los técnicos municipales y guarde consonancia cromática con el entorno según el criterio municipal.

3. No se autoriza el mobiliario con mensajes publicitarios. El uso de mobiliario con esponsorización vendrá limitado por la normativa vigente sobre la prevención, asistencia e inserción en materia de drogodependencias. En todo caso la superficie con esponsorización no excederá del 10% de la superficie total donde se sitúe, guardando consonancia cromática, según el criterio municipal.

4. Las sombrillas y parasoles deberán tener un diseño definido con un tratamiento cromático unitario que en ningún caso será llamativo ni estridente, debiendo guardar consonancia con el entorno, según criterio municipal.

5. Se admitirá la instalación de otro mobiliario complementario (barriles, ceniceros, jardineras...) siempre que se sitúen dentro del espacio autorizado, se incluyan dentro del proyecto original y no incumplan la ley de accesibilidad vigente.

**Artículo 12.—*Protecciones laterales***

1. El área ocupada por la instalación podrá quedar delimitada por protecciones laterales que acoten el recinto.

2. Las protecciones permitirán identificar el obstáculo a los invidentes.

3. Estas protecciones laterales no podrán rebasar el espacio autorizado y su altura no será inferior a un metro ni superior a uno con cincuenta metros.

4. El uso de protecciones con esponsorización vendrá limitado por las condiciones del punto 3 del artículo 11. También se permite el nombre del local o el logotipo del establecimiento, pudiéndose llegar en estos casos al 50% de la superficie.

5. Deberán incluirse en el proyecto original.

**Artículo 13.—*Cubiertas***

1. La cubierta podrá realizarse mediante sombrillas, parasoles y otros elementos móviles similares.

2. Deberán incluirse en el proyecto y estarán incluidas en la licencia de terraza.

3. No se permiten cubiertas mediante carpas o elementos similares.

4. La cubierta mediante toldos deberá será objeto de licencia independiente de la terraza y deberá cumplir las siguientes condiciones:

a) La altura mínima del borde exterior del toldo extendido a la acera será de 2,50 metros.

b) El vuelo máximo del toldo extendido quedará retranqueado un metro (1 m) del borde exterior de la acera.

c) Su proyección sobre la acera no volará sobre ningún elemento del mobiliario urbano, jardinería etc. y no impedirá el libre acceso a estos ni a instalaciones propias de la urbanización.

d) El toldo quedará adosado en la propia fachada del establecimiento y no podrá ser superior a su ancho de la fachada.

cve: BAO-BOB-2012a136

e) Toldoa egunez baino ez da zabalduko eta kaleko argiak pizten direnean bilduko da. Hala ere, zabalik utzi ahal izango da bere azpian argi osagarriak baldin badaude; horrelakoetan, argiok kalekoak pizten diren aldi berean piztuko dira eta kalekoen antzeko argi-maila bermatu beharko dute.

f) Toldoen kolorea oro har Bordele gorria izango da. Edonola ere, toldo guztiek diseinu zehatza izango dute eta denek kolore berbera, inola ez biziegi edo nabarmenegia, zeinak, udal teknikarien iritziz, inguruarekin bat etorri beharko baitu.

g) Esponsordun toldoek 11. artikuluko 3. atala bete beharko dute. Lokal edo establezimenduaren izena edo logotipoa ere erakutsi ahal izango dute eta horrelako kasuetan eremuaren % 50era iritsi ahal izango dira.

III. TITULUA

## BAIMENEN ARAUBIDEA

I. KAPITULUA

### UDAL LIZENTZIA ESKURATZEA

**14. artikulua.—*Eskakizunak***

1. Terrazak eta berauen elementu osagarriak ipintzeko derrigorrezkoa da Udalaren baimena, hau da, udal lizentzia.

2. Terrazaren eta toldoaren titularra jarduerarena bera izango da.

3. Ostalaritza-jarduerak jarduteko lizentzia edukiko du, eguneratua eta indarraldian, terrazak instalatzeko murrizketa bete behar ez duena.

4. Eskatzaileak beste hau ere bete beharko du: ezin da erreinzidentea izan, Portugaleten lege-haustea eginda, terrazak instalatzeari dagokionez, gutxienez azken bi urteotan.

**15. artikulua.—*Lizentziak izapidetzea***

Interesatuak eskaera, alkateari zuzendua, eramango du Erregistro Orokorrera. Eskaera-orrian hauexek agertuko ditu:

a) Eskatzailearen izena eta bi abizenak.

b) Eskatzailearen datu pertsonalak: bizilekua, telefonoa eta NANa.

c) Establezimenduaren izena eta kokagunea.

d) Jardueraren datuak: IFK.

e) Lizentziak iraun behar duen aldia: urtebetea edo udaldia (ekainaren 1etik irailaren 30era).

**16. artikulua.—*Instalazioaren proiektua***

Eskaera-orriarekin batera instalazioaren proiektua ere aurkeztuko da. Proiektu horrek gutxienez agiri hauek eduki behar ditu:

a) Lokalaren kokapen-planoa, 1:500 eskalakoa, kartografia ofiziala oinarri hartuta.

b) Xehetasun-planoa, 1:100 eskalakoa. Plano honek agertu behar du instalazioa dagokion herribidearen zatia; xehe azaldu behar du nola kokatzen diren mahaiak eta aulkiak, alboko babesak, lorontziak, eguzkitakoak eta abarrak; agertu behar ditu, halaber, dauden hiri altzari guztiak (trafiko-seinaleak, arbolak, jezarlekuak, paperontziak...); eta, azkenik, akotatu behar ditu gutxienez fatxada okupatuaren luzera, pasabide hutsen zabalera eta hiri altzarietarako aldeak.

c) Xehetasun-planoak alboko babesaren altxaera ere zehaztu beharko du.

d) Instalatu beharreko altzarien ezaugarriak, materialak eta forma ere aipatuta.

**17. artikulua.—*Ebazpena***

Behin eskaera ordenantza honek agindu bezala eginda, Udalaren zerbitzu teknikoek proposamena egingo dute. Proposamen horrek instalazioaren planoa edukiko du, osagarri eta neurri guz-

e) El toldo solo permanecerá extendido en horario diurno, debiendo ser recogido en el momento en que se encienda el alumbrado público. Podrá dejarse extendido si se dispone de alumbrado complementario bajo el toldo y se encenderá a la vez que el alumbrado público. Este alumbrado complementario deberá garantizar una iluminación similar a la del alumbrado público.

f) El color de los toldos, como norma general, será rojo Burdeos. En todo caso deberán tener un diseño definido con un tratamiento cromático unitario que en ningún caso será llamativo ni estridente, debiendo guardar consonancia con el entorno, según el criterio municipal.

g) El uso de toldos con esponsorización vendrá limitado por las condiciones del punto 3 del artículo 11. También se permite el nombre del local o el logotipo del establecimiento, pudiéndose llegar en estos casos al 25% de la superficie.

TÍTULO III

## RÉGIMEN DE AUTORIZACIONES

CAPÍTULO I

### OBTENCIÓN DE LA LICENCIA MUNICIPAL

**Artículo 14.—*Requisitos***

1. La instalación de terrazas y de sus elementos auxiliares queda sujeta a previa autorización municipal en forma de licencia.

2. El titular de la licencia de la terraza y toldo coincidirá con el titular de la licencia de actividad.

3. La actividad de hostelería deberá disponer de la correspondiente licencia de actividad, actualizada al pago, vigente y no sujeta a la restricción para la instalación de terrazas.

4. Será también necesario que el solicitante no sea reincidente en la comisión de infracciones en el municipio de Portugalete en materia de instalación de terrazas durante al menos los dos últimos años

**Artículo 15.—*Tramitación de las licencias***

1. La persona interesada deberá presentar en el Registro General, la correspondiente solicitud, dirigida al señor Alcalde, en la que hará constar:

a) Nombre y dos apellidos del solicitante.

b) Datos personales del solicitante: dirección, teléfono y D.N.I.

c) Nombre y emplazamiento del establecimiento.

d) Datos de la actividad: C.I.F.

e) Periodo en el que se desea la licencia: año completo o periodo de verano (del 1 de junio al 30 de septiembre).

**Artículo 16.—*Proyecto de la instalación***

Junto con la solicitud de licencia deberá adjuntarse un proyecto de la instalación, que constará, al menos, de los siguientes documentos:

a) Plano de emplazamiento del local a escala 1:500 sobre base de la cartográfica oficial.

b) Plano de detalle, a escala 1:100, en el que se recoja el tramo de vía pública afectado por la instalación, detallando la distribución de mesas y sillas, protección laterales, jardineras, parasoles, etc., reflejando, además, la existencia de cualquier mobiliario urbano existente (señales de tráfico, árboles, bancos, papeleras.. etc.), con acotación como mínimo de la longitud de fachada ocupada, del ancho de los pasos libres resultantes y distancias al mobiliario urbano.

c) En este segundo plano se incluirá detalle de la protección lateral en alzado.

d) Características del mobiliario a instalar, indicando tipo de material y forma.

**Artículo 17.—*Resolución***

Formulada la petición en los términos exigidos en la presente ordenanza, los servicios técnicos municipales procederán a realizar un propuesta que incluya un plano de la instalación con todos

cve: BAO-BOB-2012a136

tiak agertzen dituena, eta oinarri moduan erabiliko dutena, udal organo eskudunak gehienez hiru hilabetetan ebazpena egin dezan. Epe hori igarota, interesatuak esanbidezko erantzunik jaso ez badu, ulertuko da eskaera ezetsi egin dela, baldin eta okupazio-eskaera lurzoru pribatu bati bakarrik ez badagokio behintzat eta hirigintza antolamendua urratzen ez badu.

**18. artikulua.—*Lizentziaren baldintzak***

1. Lizentziaren titularra ziango da ostalaritza-jarduera herribidean garatzetik etor daitezkeen betebehar eta erantzukizun guztien arduradun bakarra, betebehar eta erantzukizunok direnak direlarik ere.

2. Lizentzia honen ariela urtean behin ordainduko da, ordenantza fiskalak agindu bezala.

3. Lizentziak jabetza-eskubidea gordeta eta besteri kalterik eragin gabe emango dira beti; lizentzia edukitzeak ez ditu urritu edo baztertuko titularrak bere jarduerak betetzean izan dezakeen erantzukizun zibila eta zigor-erantzukizuna; horrez gain, titularrak, hala denean, bestelako baimenak ere lortu beharra izango du.

4. Lizentziaren agirian instalazioaren eta horren elementu osagarrien baldintzak zehaztuko dira, eta hartuko duen azalera, emakidaren indarraldia eta beharrezkoak diren bestelako gorabeherak ere bai.

5. Lizentziak behin-behinekoak izango dira beti eta Udal agintaritzak, arrazoibidez, baimenduriko instalazioak bide publikotik behin-behinekoz edo behin betiko kentzeko agindua eman ahal izango du, trafikoagatik, obrengatik, hirigintza mailako zein guztien onurako gorabeherak direla-eta, horiek kentzea komeni denean; hori gertatuz gero, ez da inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik.

6. Lizentziaren titularra instalazioa ipintzeak bide publikoan eta kaleko altzarietan gertaturiko kalteak konpontzera behartuta dago.

7. Udal teknikariek beharrezkoa iritziz gero, zuinketa in situ egingo da.

8. Herribidea okupatu aurretik, lizentziaren titularrak ostalaritzan herribidean jardutearen erantzukizun zibileko aseguruaren kopia aurkeztu beharko du.

**19. artikulua.—*Indarraldia eta berriztea***

1. Lizentzien indarraldia urte natural osokoa edo ematen diren aldikoa izango da. Urte naturalaren barruan, indarraldi hori urte osokoa izan daiteke edo, bestela, udaldikoa (ekainaren 1etik irailaren 30era).

2. Lizentzia automatikoki luzatuko da, aurreko baldintza berberak ezartzen dituelarik. Interesatuak luzatze horri uko egin nahi izanez gero, halña jakinarazi beharko du, gutxienez luzatze-aldia hasi baino hilabetea lehenago.

3. Instalazioaren osagarrien kopuruari, motari eta kokapenari aldaketak eginez gero, beste lizentzia bat beharko da.

4. Indarrean dagoen irisgarritasun-legean instalazioari dagokion aldaketak eginez gero, lizentzia berraztertu egin beharko da, lege berriari egokitzeko.

**20. artikulua.—*Jarduteko ordutegia***

1. Jarduera nagusiak baimendurik daukan ordutegia dena delarik ere, terraza 9:00etatik 23:00etara bakarrik erabili ahal izango da. Ostiraletan, larunbatetan eta jaiegunen bezperetan, aldiz, 24:00etara arte luzatu ahal izango da ordutegi hori. Ekainaren 1etik irailaren 30era, gainera, 60 minutuz luzatuko da ixteko ordutegia ostiraletan, larunbatetan eta jaiegunen bezperetan. Patroiaren eta auzunetako jaietan ordutegi berezia ezar daiteke. Igande eta jaiegunetan hasteko ordua berandiago, 10:30ean, izango da, kalea garbitzeko lanei astia eman nahian.

2. Terrazaren muntaketa terraza funtzionamenduan hasi baino ordu erdi lehenago hasi ahalko da. Desmuntaketa, berriz, terraza ixteko ordutik ordu erdira bukatu beharko da. Hori guztia auzokoei eragozpenik sortu gabe eta horretarako baliabideak erabilita egingo da.

3. Instalazioko altzariak inola ere ez dira herribidean bilduko.

